



LUIS JAUREGIALTZO / FOKU

«Hau gizarte osoaren ardura da; eskolak ezin dio guztiari erantzun»

Nelida Zaitegi • EAEko Eskola Kontseiluko lehendakaria

Segurtasun neurriak hartuta ikasle guztiak irailean ikastetxera itzuli behar dutela azpimarratu du Nelida Zaitegik. Baliabide gehiago eskatu aurretik ikastetxeetan dauden guztiak erabiltzearen alde egin du.

Irati Urdalleta Lete

Irailean 7a buruan, ikasturte hasierari begira daude Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikasleak, irakasleak eta gurasoak. Nelida Zaitegi EAEko Eskola Kontseiluko lehendakaria (Abanto, Bizkaia, 1946) argi dauka gizarte osoaren beharra dagoela.

Ikasturtea hasteko prest ikusten al dituzu ikastetxeak?

Uste dut egoera desberdinak daudela. Ezagutzen ditut ikastetxeak astelehenetik zuzendaritza talde guztia eta koordinatzaileak lanean dituztenak; aurreko astean egon zirenak; eta oporetan daudenak, eta hilaren lehen planteatuko dutenak. Aste honetan iritsiko dira orientabideak, eta horrek berriz pentsaraziko die eurek jada antolatuta eduki zezaketena. Arduratzen nauena da jendea askotan gauzak egiten ari dela eta ez direla kontatzen.

Uste duzu Hezkuntza Sailak ondo antolatu duela itzulera?

Ekainean, ikastetxeetara bidali ziren zirkularrak, hiru egoera zehaztuta. Hezkuntza Sailari dagozkiona zera da, ikastetxe guztientzat orokorra denaz hitz egitea. Baina, gero, partikularra dator, eta hori ikastetxe bakoitzari dagoiko bere espazioen, dauzkan taldeen, bere ikasleen beharren, ikasle kopuruaren arabera. Ikastetxe bakoitzak egin behar duen kontingentzia planak gainbegiratu behar ditu ikuskaritzak, eta *feedback* bat itzuli. Ikastetxeek ere komunikatu egin behar dute familia guztiei zer egiten ari diren, zein den egoera... Argi dago ikasle guztiak itzuliko direla eskolara irailean; beste kontu bat da nola eta zer neurriekin.

Jaurlaritzak ez du esan ikasgeletan positiboak daudenean nola jokatu. Badaukazue berririk?

Badakit egiten ari direla, baina ideiarik ez zer egingo duten. Edozer dela ere, ez dagoit niri. Neurri horiek Osasun Sailarekin batera hartu behar dituzte.

Uste duzu segurua izango dela ikastetxeetara itzultzea?

Erabateko arriskurik eza ez dago, hondartzan, parkeetan, terrazetan ez dagoen bezala. Kontua da abantailak eta desabantailak aztertu behar direla. Hezkuntza prozesuak aurrekoak izan behar du. Momentu batzuetan konfinatu beharra egon daiteke, eta *online* izango dela eta etxean mugarik gabe geratu.

Uste duzu baliabide gehiago behar direla itzultzeko?

Seguruena bai, baina kontseilukoek esan genuen optimizatu egin behar direla. Kontua ez da irakasle gehiago kontratatzea gauzak berdin egiteko; baizik eta gauza desberdinak egin behar dira, beste denbora batekin, bestelako metodologiaz... Orain, funtsean, hauek landu behar dira eskolan: zaintza emozionala, euskerakakoa da, eta sakon prestatzea *online* hezkuntzarako. **Irakasle gehiago behar al dira?**

Ikastetxe bakoitzaren arabera, dauzkaten ratioen eta ikasleen arabera. Irailean, ikusi behar dugu nola antolatu gaitzeko dugunarekin; iristen ez garenean, eskatu beharko dugu, eta segur aski beharko da, baina ez eskola guztietan, baizik ratio handiak dituztenetan, ikastetxe oso handietan, lekurik ez dutenetan... Pentsatu behar da zer egin ikasleak berrogeialdian jarri eta gurasoak etxean egon ezin direnean. Hau gizarte osoaren ardura da; eskolak ezin dio guztiari erantzun.

Jaurlaritzak gomendatu du hamar pertsona baino gehiago ez elkartzeko, baina ikasgeletako ratioak ez dituzte jaitsi. Beharrezkoa al da?

Hamar pertsona ez elkarkez ari garenean, familiez, lagunez eta abarrez ari gara, segurtasun distantziak ez direlako betetzen. Uste dut zentzuz jokatu behar dugula, eta hamarreko taldeak egin behar baditugu, egingo ditugu. Ikastetxeak begiratu du nola egingo dituen eta nola eduki ditzakeen hogeiko taldeak bi metroa banatuta gimnasio batean, eta pertsona bat horiek zaintzen, *online* lan egiten duten bitartean. **Uriartek itzulera presentzialaren alde egin du. Zuen ustez, nolakoa izan behar luke itzulera?** Uste dut presentziala izan behar duela oraingoz, ezer pasatzen ez den bitartean. Gauzak oso modu desberdinetan egin daitezke: milaka formula daude, eta beste herrialdeetan entseaturik ari dira.

Konfinamenduaren ondorioz, irailean desorekak ikusiko dira ikasleen artean. Nola egin behar zaie aurre?

Ume bakoitzaren egoera ikusi behar da: nola dagoen, zer behar duen... Uste dut ikastetxeek eduki behar dutela malgutasun pixka bat esateko norik behar duen ordu gehiago egotea, norik gutxiago... **Zer baliabide falta daitezke?**

Eskola bakoitzaren egoeraren arabera izango da: dituzten irakasleen, espazioen eta abarren arabera. Uste dut hezkuntza ez dela gastu bat, etorkizuneko inbertsio bat baizik, eta dirua jarri behar da, baina buruarekin, ikasle ongi zaterako eta ikasketarako beharrezkoa den horretan.

Ikasgeletara itzuli aurretik PCRak egin behar al zaizkie irakasleei eta gainerako langileei?

Ez dakit modu orokorrean, baina, agian, arriskuko herritarrei bai. Hezkuntzako langileak funtsezkoak gara; beraz, ondo zaindu gaitzatela, begiratu diezagutela, baina hor egon behar dugu, funtsezkoak garela.

Euskara erdigunean jartzeko eskatu du Kontseiluak

DONOSTIA • Kontseiluak ohartarazi du pandemia hasi aurretik ere bazutela ezinegona, eta are gehiago ondoren, «milaka eta milaka haurrek eta nerabek ez baitute inolako loturarik izan euskarekin ia urte erdiz». Haatik, euskararen gaia «erdigunean» kokatzea nahi dute.



Nafarroako Unibertsitatea. LU/FOKU

NUPeK aurrez aurre emango ditu eskola guztiak

DONOSTIA • Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2020-2021eko ikasturtea hasiko du irailaren 2an, eta irakasgai guztiak presentzialak izango ditu. NUPeK «kontingentzia plan bat» taxutu du datorren ikasturterako, egoera batean zein bestean zer egin behar den argitzeko.

Ikastolek aurrez aurreko hezkuntzaren alde egin dute

GASTEIZ • Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteak lehendakariak aurrez aurreko hezkuntzaren alde egiten dutela azpimarratu zuen atzo. «Ziurgabetasuna» salatatu du, eta baita neurriak berandu iristen ari direla ere.

Ostiralean jakinaraziko dute itzulera nolakoa izango den

DONOSTIA • Atzo Inigo Urkullu Jaurlaritzako jarduneko lehendakariak esan zuenez, ostiralean jakinaraziko dute zer neurri bete beharko diren itzuleraarako. Urkulluk ziurtatu du eusten diotela jardura presentziala izateko planteamenduari.